

ERABAKIA, 2021EKO AZAROAREN 19KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ KIMIKA FAKULTATEKO “BULEGOKO BURUA” (F361) LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO EBATZI DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa: 2019ko ekainean hasitako lekualdaketa prozesua amaitu ondoren eta 2021eko azaroaren 1ean egindako lanpostuen jabetzaren ondorioz Inés Leonor Marcos Caballero andrea, F 361 Kimika Fakultateko bulegoko burua lanpostura itzuli behar izan zuen.

Bigarrena: Honek, lanpostu hau 2020ko ekainaren 3ko erabakiaren bidez, zerbitzu eginkizunetan betetzen ari zen, pertsona postuaren betetzeari utzi beharra eragin du.

Hirugarrena: Gerentearen 2021eko urriaren 4ko UPV/EHUko Ebazpenaren bidez, Inés Leonor Marcos Caballero andreari, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Koordinatzaile lanpostua (F427) Gipuzkoa Campusean zerbitzu eginkizunetan, aldi batez betetzeko esleipena egiten zaio.

Laugarrena: Aurrekoa dela eta, F361 lanpostua bete behar da, lanpostuaren jabea, zerbitzu betekizunetan dagolako beste lanpostu batean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).
- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA)
- Deialdia egiteko UPV/EHI: Jko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena hartutako 2021eko urtarrilaren 28ko errektorearen erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena: UPV/EHUko AZPkoen Plangintza batzordearen Akordioa 2017ko uztailaren 18koa AZP funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak deitu eta esleitzeko prozeduraren ebazpenaren hirugarren artikuluan adierazten da. *Ebazpen honetan zehaztutako prozeduran salbuespenak egin daitezkeela zerbitzuaren proposamenari jarraituz interesatua ados badago eta Pertsonaleko gerenteak horretarako baimena ematen badu. Salbuespenak honakoetan egin ahal izango dira:*

3.3.– Zerbitzu betekizunean dagoen langileak lanpostua uzten badu titularra itzuli delako edo lanpostua gordeta izateko eskubidea zuen funtzionarioa itzuli delako edo izangaien artean eskubide handiagoa daukan norbaitek beteko duelako, eta 3 hilabete baino lehenago berriro ere lanpostua bete gabe geratzen bada, aukera egongo da zerbitzu betekizunetan zegoen langile hura berriro izendatzeko zerbitzuok betetzeko.

Horregatik guztiatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Kimika Fakultateko "Bulegoko burua"(F361) lanpostua Zerbitzu eginkizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan

Bigarrena.- Esleipenak 2021eko azaroaren 24ko ondorio-datatz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2017ko uztailaren 18ko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

Laugarrena - Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, interesdunari, dagozkien . Zerbitzuko Buruei edo Administrazioarekiko, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2021eko azaroaren 19an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia (2013ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche

I. ERANSKINA

2021eko AZAROAREN 19ko ERABAKIA, UPV/EHUKO GERENTEARENA KIMIKA FAKULTATEKO "BULEGOKO BURUA" F361 LANPOSTUA ZERBITZU EGINKIZUNEN ERREGIMENEAN EMATEA EBAZTEN DUENA

Esleipenduna: RECONDO ERRO, Vicente

Ordezko esleipenduna: ZAFRA ASTID, Rosa

Izena: Bulegoko burua

Zenbatgarrena: 7

Erreferentzia: F361

Eskala: Administraria/Administrari laguntzailea

Taldea: C/D

Maila: 19

Hizkuntza eskakizuna: 2 ; 1995/01/31

Langunea: Kimika Fakultatea

Campus: Gipuzkoa

Ondorioetarako data: 2021/11/24